

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2021eko lehen seihi- lekua— jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2021eko lehen seihi-lekua—, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea—, aztertu eta egokitzen jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2021eko martxoaren 22tik maiatzaren 25era artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 21ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE